# EUZKERA BIZIRIK OINDIÑO ARABA'N

Bai, oindiño gure euzkera bizirik dago Araba osoan. Balitek-ke batzuentzat onela bayeztea aintzakotzat artzeko ez izatea; baña onelaxe da, emen egiztatu nai dugun bezela; bizi da oraindik gure izkuntza zaŕa gure erdian, naiz eta onezkero ain gutxi mintzatzen dan aŕen.

Jakiña, guziok dakigunez, gaur Araba'n euzkera ez da itzegiten Aramayona'n eta Legutiano ondoko eŕi txiki batzuetan baño. Alaz ere ziñez esan dezakegu euzkera, gaur ere, Araba'n barna bizi-bizirik dagoela. Ikus dezagun nola:

Araba'ko toki geyenen izenak eta eŕi ta auzoen izenak euzkeraz dagoz jaŕita; ondorioz izen oyek esan eta aipatzen ditugunean, ala beaŕik, euzkera da erabiltzen dugun izkuntza, esate edo aipatze orie giten duena edonor izan, bai ta, besterik eziñean, euzkerarekiko zaletasunik ez dutenak, bai ta bera goŕotzatzen dutenak ere, zoritxaŕez goŕoto ori dutenak izanaŕen; ain ulergaitza baita goŕoto ori izatea.

Oŕa egipen bat iñork ukatu ezin dezakena, ain argi ta nabaria izatean; beraz ortxe dago euzkera bizi-bizirik eta guziok nola begiratu beaŕ dugun. Eta ez luŕ-tokietan bakaŕik, eŕiari buruz berdin gertatzen baita, Araba 'ko eŕi geyenen izenak oŕelaxe, euzkeraz, jaŕita dagozelako: Mendizoŕoza, Mendizabal, Armentia, Luzuriaga, Leza, Basabe, Menagarai, Landa eta abaŕ.

Oŕa egipen bat iñork ukatu ezin dezakena, ain argi ta nabaria izatean; beraz ortxe dago euzkera bizi-bizirik eta guziok nola begiratu beaŕ dugun. Eta ez luŕ-tokietan bakarik mintzatzen ziran orduko biztanleak.

Beste gauza bat be gertatzen da egipen ortan: icen guztiak ain egokiro jaŕita izatea, toki bakoitzean edo bere inguruan ikustekoak ziran azpegiak ederto aipatuak izan ziralarik. Eta oŕek ondoenik erakusten digu orduko gure asaba ayek, euzkeraz bakaŕik mintzatzen ziran orduko biztanleak.

Beste gauza bat be gertatzen da egipen ortan: izen guztiak ain egokiro jaŕita izatea, toki bakoitzean edo bere inguruan ikustekoak ziran azpegiak ederto aipatuak izan ziralarik. Eta oŕek ondoenik erakusten digu orduko gure asaba ayek, euzkeraz bakaŕik erabiltzen zutelako, beren izkuntza oso ongi zekitela, bera zan bezela ta ezeren kutsaturik izan gabe gañera.

Ta gaur Araba deitzen dugun luŕaldean gertatu zen ura, aldi berean Napaŕoa, Gipuzkoa, Bizkaya, Laburdi ta Zuberoa beste luŕaldeetan be berdin egin zan; alde guzti oyetan beren tokien izenak ikusten dira Araba'koak bezela, berdin egiñak, gisa berean eta orobat eraetan naiz tajuetan naiz esan-nayean.

Oso berdiña dan jokera orrek argi-argi egiztatzen digu orduko Euzkal-batasuna, batasun aundia euzkeraz adierazita: ta era berean argi ta garbi ere euzkaldun guztiok beti eraman beaŕ dugun bide ertsia zein dan erakusten digu: Euzkal-nortasun nabaria, lenengoa dana, neurri aundienean eusten eta indartzen gure Eŕi guzian barna; guziaren erakusle nagusia eten gabe euzkera dalarik eta beti oŕela izango dana.

Euzkera, gero, mendez-mende galdurik izan dala esaten da nun-nai; baña ori ez da gertatu oŕela, eiki, gure izkuntza berez galdua izan dala, España ta Frantzia lateŕiak galdu-erazi galdu-erazi digutela baño, berenganatzeko gogoetaz betidanik erabili dute, beren gure aurkako oyen egikera, batez ere, izugaria izan da, ikastoletan iñoiz onartu gabe ta gañera gure aur euzkaldunak, euzkal-itz bat bakaŕik entzutean naikoa izan zala, zigoŕ aundia jasotzeko.

Eta alaz ere euzkera bizirik jaŕaitzen da Araba ontan be, len ongi ikusi dugunez. Gure aldetik ezin onartu dezakegu gertatutako galtzea betikoa izan dedila; arabaŕak bezela alegin aundienak egin beaŕ ditugu ementxe euzkerari indaŕ aundiena ematekо, ori guziontzat eginbide aundi ta ertsia izanik, beŕiz Araba guzia euzkalduna izan dedin.

Eŕi ta tokiari buruz esan duguna, gure abizenekiko be esan dezakegu, auek ere euzkeraz egiñak dagozelako; beraz, auetan be euzkera bizirik dagoela oartu beaŕ dugu, enurarik gabe; alakotz, nai eŕi, naiz toki, naiz abizenetan euzkera jaŕaitzen da bizi-bizirik.

Abizenai buruz beste zerbait aipatzea da bereziki: Ibañez de Garayo, Lopez de Letona, Perez de Landazabal eta oŕelako besteetan auxe gertatu zan, ene ustez, erdiaroan oŕelaxe erabiltzean asi-izan zanean:

Martinez de Mendibil abizena zuenari seme bat jayotzen zitzayonean eta Lope izena jaŕi ezkero, seme oŕek gero onela erabiltzen zuen bere aitaren abizena onelaxe aldaturik; Lopez de Mendibil; eta oni beste seme bat jayotzen zitzayonean eta Iban izena ipintzen bazion, beste seme oŕek bere buruari ez zion deitzen ez Martinez de Mendibil ez eta Lopez de Mendibil ere, Ibañez de Mendibil baño; ta oŕela orduko abizenen bi itz oyetatik lenengoa zan aldatzen zana bakoitzaren izenaren arauz, eta bigaŕena zan beti jaŕaitzen zana. ta ez iñoiz lenengoa, au bakoitzaren izena aipatzeko bakaŕik erabiltzen zalako.

Ba-dago oindiño beste zerbait euzkal-itz oyek erabiltzean; eguneroko izketan, erderaz egiten diranetan noski, euzkal-itzak erabiltzen dirala. Araya'ko "Aitzbaŕen" bazkunak orain bi urte egindako batzaldi batean beŕeun euzkal-itz agertu ziran eŕi ortan egunero erabiltzen diranak, geyenetan euzkal-itzak dirala oartu gabe.

Oŕa bada Araba'n euzkerari buruz ondo ikusi beaŕ duguna; ta oŕek erakusten digu, argienik, arabaŕak, auxe izateagatik, euzkaldunak gerala oso, ta ondoenik orixe egiztatzen digu. Noski iñork edo eztaki, Araba, Bizkaya, Gipuzkoa, Napaŕoa, Laburdi ta Zuberoa noiz asi ziran izen oyetaz agertzen; baña oyek izan baño lenago Euzkal-Eŕia izan zan bizi zana: ta gero, noizpait, euzkaldunek beren egokitasunerako edo, izen oyen erki edo erakundeak bezela antolatu zituzten. Geroago erki oyek nortasun aundia artu zuten, baña iñoiz euzkaldunen nortasunaren aurka jokatzeko; ta beti guztien eginbidea euzkal-nortasun ori gorde ta indartzea izan beaŕ ezmezik gabe.

Ta esandako guziaren ondorio beaŕa, aipatutako itz guziek ondoenik erakusten diguten bezela, auxe: atzeruntz begiratzean, Araba ta arabaŕok oro, asieratik euzkaldunak izan gerala; ta orain eta gerorako ezinbesteko gure bidea argi ta garbi azaltzen digutela: beti euzkaldunak izatea, gure bereiztasun au eten gabe aunditzen eta sendotzean; elburu au euzkeraz bakaŕik bete alizango dugu, eztago besterik. Ori gure eginbide nagusia bezela onartu beaŕ dugu, beste euzkaldun guztiek bezela; ta ororen artean gure Euzkal-Eŕi'ari egokienik eutsi al-izateko.

URRESTARAZU'TAR ANDONI (+)